

*DURANGALDEKO UDALTALDE 21KO
TOKIKO AGENDA 21 FOROAREN
DINAMIZAZIOA*



*Abadiñoko Udala
Foroaren akta
2007/10/08*

 **GESTIKER**

ESTUDIOS DE MERCADO Y OPINIÓN
MERKATU ETA IRITZI IKERKETAK

Garain Tokiko Agenda 21ren Herri- partaidetzaren Foroak ospatutako batzarraren Akta Abadiñon

Tokia:

- **1. deialdia:** 2007ko urriaren 8an, Abadiñoeko Errota kultur etxea.
- **2. deialdia:** 2007ko azaroaren 5ean, Abadiñoeko Errota kultur etxea.

Ordua:

19:00tik 21:00tara deialdi bietan.

Bertaratutakoak:

- 1. deialdia:

Aitor Urquijo eta Etor Goikouria (Gestiker)

+/- 8 herritar

- 2. deialdia:

Ismene Mandaluniz (Udaltalde)

Aitor Urquijo eta Etor Goikouria (Gestiker)

+/- 19 herritar

Alkatea (Abadiñoeko Udala)

Oharra:

Foro honek bi deialdi izan ditu bere antolamendu eskasagatik, izan ere, 1. deialdira bertaratutakoak pertsonalki eskutitz bat jaso dutelako izan da.

Udaletxea gertakizun honetaz kezkatu da eta foroaren deialdirako prozesua berriro egitea erabakitzen du herritar gehiago bertaratzeko asmoz. Deialdiaren prozesuko funtzionamendu txarraren erantzukizuna alkateak berak duela aitortu du.

Sarrera:

Durangaldeko Udaltalde 21en ordezkariak eskerrak eta ongietorria eman dizkie bertaratuei. Bileraren testuingurua azaldu du, eta foro-deialdien artean izaniko denbora-tartearen zergatiak eman ditu: Udalsarea 21en sartzeko epeak eta Udaltaldeko zenbait udalerrik beren garapen iraunkorrerako ekintza-planak onartzeari itxaron beharra, hain zuzen ere.

Aholkularitzak zoriondu egin du udalerria Udalsarea 21en sartzeagatik eta aurrez Tokiko Agenda 21 ezartzeko eginiko lanagatik.

Era berean, geroago udalbatzaren osoko bilkuran Tokiko Ekintza Plana onartzeagatik ere zoriondu du udalerria.

Komunikazioa:

Aurkezpena egin da eta, bertan, lurretako Foroak Tokiko Agenda 21en baitan orain arte egindako lana berrikusi da.

Abadiñoko TEPrein diseinua eta onespena azpimarratu da. Plan hori herritarren Foroan bertan sortutako proposamenez eta ekintzez dago osatuta; bost linea estrategiko nagusi ditu, eta linea horiek hirurogeita bost ekintzatan banatzen dira. Era berean, planifikazio iraunkorrean sartu beharreko ekintzak diseinatzen eta proposatzen Foroak lan garrantzitsua egin duela azpimarratu da.

Jarraian, Foroaren markoa eta helburuak azaldu dira. Aurkezpen orokorra amaitzean, Tokiko Agenda 21eko Herritarren Parte Hartze Foroaren funtzionamendu- eta garapen-planteamenduan sakondu da, eta bai Gizarteari (herritarrei eta udalerriko agenteei) bai Udalari dagozkien funtzioak azpimarratu dira.

Gero, Tokiko Ekintza Planen ezartze-fasean Agenda 21 Foroaren baitan Gizarteak (herritarrek) Udalarekin izango duen erlazioa gidatzeko egokia izan daitekeen funtzionamendu-mekanikari buruzko hainbat azalpen eman dira.

Galde- eskeak:

Herritarrei, politikoei eta teknikariei buruzkoak:

Lehenengo parte- hartzeek, bereziki foroaren 1. deialdian, udaletxeko inor ere ez egoteak desilusia sortarazten du herritarrengan.

Deialdiak egokitzeari buruzko komentarioak daude eta prozesu hori nola hobetu daitekeen eztabaidatzen da. Abadiñon eragina duten agente sozialei eta elkarteei buruz galdetzen da.

TEPri buruzkoak:

Udalatik informazio falta dagoela azpimarratzen da, izan ere, TEP onartu dela ez dute ezagutzen herritarrek.

Bestalde, TEPren eta bere bertsio murriztuaren (LPA) funtzioak ezagutu nahi dute foro honek garatuko dituen gaiak ezagutzeko. Hau dela eta, herritarrek foroetan partehartzeko mezua bidaltzea iradoki da.

Foroaren marko eredugarriari buruz:

Herritarrek foro hau tresna ona dela onartzen dute herriaren kudeaketan parte-hartu ahal izateko.

Hurrengo foroa martxan jartzeko premia sumatu da herritarrengan, lehenetsunezko ekintzak zehazteko eta horrela, hurrengo urtean egin nahi diren ekintzak aurrekontuetan kontuan hartzeko.

Gestiker aholkularitzak Tokiko Agenda 21eko foroan garatzen diren gaiak TEPekin eta iraunkortasunarekin lotuta daudela gogorarazi du.

Eskerrak eta amaiera:

Herritarrei hurrengo Fororako dibulgaziozko tresna izan ahal direla gogoratu zaie. Foro hau urtearen azken hiruhilabetean garatuko da, foro honen helburua Abadiñok 2008rako TEParen lehentasunezko ekintzak zehaztea izanik.

Abadiño, 2007ko azaroaren 5a
Ismene Mandaluniz
Durangaldeko Udaltalde 21 Teknikaria